

## 17. Antropologia Filosofikoa

Joxe Azurmendi

Antropologiak gizakia zer den argitzeko zientzia edo diziplina izan gura du oro har. Gizon-emakumeak hainbat ikuspegitatik eta hainbat modutan iker daitezkeenez, gaur antropologia-mota askotarikoak aurki daitezke bereizita, aukeren arabera: antropologia naturalista edo biosoziala, biopsikikoa, kulturala edo soziala (etnologikoa), pedagogikoa, politologikoa (edo politikoa), ekonomikoa, teologikoa (edo erlijiosoa), filosofikoa edo, baita ere, estrukturala, hermeneutikoa, etab.

Zehatz *antropologia filosofikoa* deritzana, Alemaniako eskola edo proiektu zehatz baten izendapena izan da jatorriz (1920 aldera abiatua): proiektu polemikoa hastapen hartan, batzuek gogor ezetsia (bai Heidegger existentzialistak bai Horkheimer neomarxistak), gogoz landu eta garatua beste batzuek (Max Scheler-ek, Plessner-ek, etab.). Bigarren Mundu Gerraz gero, akademikoki finkatuta jada, izen horren esanahia zabaltzen joan da, irakaskuntza-programen interesen arabera batik bat, lortzeke alabaina oraindik bere izaeraren mugaketa garbia eta estatutu epistemologikoaren definizio oro har onartua antropologo filosofiko deritzenen komunitatean bertan. Batzuen ustez (M. Scheler, B. Groethuysen, Brüning, Landmann), antropologia filosofikoa betidanik egon da: leizeetako artean ere gizakiak bere buruaren kontzeptua eta gogoeta islatu zituzkeen modu plastikoan. Beste batzuen iritziz, ostera —begiratu adibidez *The Encyclopedia of Philosophy* (Edwards 1967, VI. bol.)—, hor “modern philosophical anthropology originated in the 1920s” irakurtzen duzu. *Enciclopedia de la filosofía Garzantin* (1992): “La expresión ‘antropología filosófica’ es típica del siglo XX”. Berebateko iritzia dute Ferrater Mora-k, Habermas-ek, eta abarrek. *The Oxford Companion to Philosophy* bi jarrerak hurbiltzeko modu bat bilatzen du, azkenean, batez ere, bigarren jarreran geldituz. Batzuen eta besteen diferentzian eta, funtsean, horien azpiko arrazoen azterketa historiko eta sistematiko bikaina Odo Marquard-ek eskaintzen du, “<Antropologia> kontzeptu filosofikoak XVIII. mendearen bukaeraz geroztik duen historiaz” artikuluan (ikus Azurmendi 1997). Hala, giza zientzietako beste definizio askorekin ere gertatzen den moduan, antropologia filosofikoaz zer ulertu behar den ebazteko, egokiena bilakabide historikoari jarraitzea dela dirudi, adiera eta mugaketa zehatzari hurbilketa bat entseatzeko aldera.

### I. ANTZIN AROA

I. “Gizakia zer den” galderari gizaki orok ematen dio nolabait erantzunen bat, bere buruaren jabe den orduko, jabe izate hutsaz. (1) Autokontzientzia horretan datza gizon-emakumeen handitasun paregabea, Pascal-en esanean: izan, oso gutxi da, ur-tanta batek hil

lezake; baina jakin badaki hil egiten dela, bera baino ahaltsuago dela unibertsoa. Eta bere txikiaren (hilkortasunaren) jakiteak handiago bihurtzen du bera unibertso osoa baino. Hein horretan zilegi izan liteke, gizon-emakumeen kontzientziari berez dagokion betidaniko “gizakiaren filosofia” gutxieneko batez, mintzatzea. (2) Zilegi da, gero, lehen gizartean erlijio eta artean, antolakuntza sozialean eta ekanduetan, autokontzientzia-molde bat eta arauzko gizakiaren kontzeptu inplizitua ikustea beti barnean (bere beldurrena, uste moral eta erlijiosoena). Are, gizakiaren nolabaiteko filosofia aski argitua ere bai jada giza jatorriaren mitoetan; horiek hainbat kulturatan aurkitzen dira. Baina hemen gizakiaren filosofia “pre-filosofiko” batean ibiliko ginateteke oraindik.

2. Horretatik bereizi egin beharko da, beraz, filosofia batean egon daitekeen antropologia inplizitua edo zeharkakoa, gutxi-asko esplizitua ere badena kasu batzuetan. Sokratesen gogoetan funtsezkoa da “zer da gizakia” galdera; zuzenki horrelaxe ez bada ere, antzeko moduan balio dezakeen hamaika eratan (zertako da bizitza? zer da bertutea?). Platon baitan etengabe teorizatzen da gizon-emakumeen zer izateaz, zuzeneko interesez izan ala zeharkakoz; esate baterako, berariazko ezagutzaren arazoaz diharduela, edo hiriaren antolaketa justuaz (ikus *Helendarren Filosofia*). Platon da Mendebalde osoarentzat filosofian, moralean, erlijioan, gure kultura komunean, oinarrizko bilakatu den gizakiaren ikusmolde dualistaren ezarle eta finkatzaile filosofikoa —ez dateke bera asmatzailea, orfikoengandik ikasia baituke—. Horren arabera, gizon-emakumea gorputz eta arimazko izakia da, erdibitua alegia. Arimazkoa, propiokien, ez-materiala eta suntsiezina da, gorputz hilkor batean preso dagoena mundu honetako bizialdian. Gizakia esentzialki arima da hortaz. Platonek argumentu razionalik finenak bururatu ditu arimaren espiritualtasuna —gorputz edo materiak menderatzeko gabetasuna— eta haren hilezkortasuna frogatzeko. Bestalde, hiriaren izatearen analititik, analogiaz, arimaren hiru zatien izatea ondorioztatu du: arima *adimenduzkoa*, *adorezkoa*, *nahikarizkoa* (hiria hiru jende-klasez osatua dagoen gisan —legegile/gobernariz, defendatzailez eta produktore/kontsumitzailez: legeak, armak, produkzioa—, dago hiru hiritar edo gizon-emakume mota, bakoitzak arimaren zati desberdin bat duela gailen). Nabaria denez, gizon-emakumea izatez kreatura hiritarra edo politikoa kontsideratzen da, hezkuntzak duen garrantziarekin.

Aristoteles ere berdin, eta hemen azaldu beharrik ez dauzkagun estoikoak are gehiago, Mendebaldeko kulturarentzat oinarri eratzaile izan dira gizakiaren kontzeptuan eta horren buruaren ulermen moral eta politikoan.

3. Antropologia filosofikoarentzat funtsezkoa da gizatasun/gizadi kontzeptuaren konkista, gizon-emakume ororen batasunarena. Hori, gaur Mendebaldean ezagutzen den bezala, arrazoiketaren eta agerkundearen bide bietatik erdietsia dugu, Lessing-en eran esateko. Iturburu bi horiek ditu, izan ere, gizaki/gizatasunaren kontzeptu Mendebaldekoak: greko-erromatarra eta judu-kristaua.

Monoteismoak, erraz ulertzen da, gizadi bateratuaren kontzeptura eraman behar zuena: kreatzaile bat bakarra badago, eta gizon-emakume guztiak haren kreaturak dira; Aita bada, haren haurrak izango dira guztiak.

(Antzinako) herri askorentzat jende arrotza, estreina, arerioa da (“atzerri, otserri”), edo gutxienez —hala greko eta erromatarrentzat— barbaroa, modu ulertezinean mintzo dena [*erdalduna*], ez gutarron berdina, ez gizatasun osokoa. Biko zatiketa sinplista hori Platonek arbuiatu arren, arrazoi logikoengatik berak (*Politikoa* 262h.), artean Aristotelesekin,

ez oso koherente gainera bere filosofiarekin, “izatez” esklabo izateko sortuak dauzka barbaroak, eta bakarrik grekoak “izatez” libre izatekoak. Alexandro Handiari, agintzeko aholkatu ei dio grekoen gainean herri buruzagi moduan, barbaroen gainean, aldiz, abere eta landareen zaintzaile bailitzan (fr. 658 Rose). Aitzitik, ordurako jada zenbait bidaiari-berriemaile eta historialari grekok begi zoli apartak erakusten ditu herrien arteko diferentziak atzemateko eta grekotasuna erlatibizatzeke (J. Burckhardt), eta horren alboan bestelako kulturei balio berdineko nortasun autonomoa ezagutzen diete: haiek besteak baldin badituzte barbarotzat, arrazoi berdinekin besteak berak izan ditzakete halakoxetzat, ikasi du Persian Herodotok (3, 38) —“Egyptoarrek, hain zuzen, beren hizkuntza berekoak ez direnei deritzete barbaro” (2, 158)—.

Hipokratesek herrien izaera eta kultura desberdinak eguraldi eta geografiaren desberdintasunen segidatzat jotzen zituen. Teoria hau Aristotelesek eta gero Posidonio Apmekoak bere egin zuten Antzin Aroan; Modernitatean hedapen handia eman zion berriro Montesquieu-k, Herder-ek hala-hala jaso, eta XIX. mendera arte arrakastatsu ibili da H. Taine eta Renan-ekin. Hortaz, gizon-emakume oro berdina lirateke berez eta izatez, kulturen arteko aldeak bizi-baldintza desberdinen ekarpenak lirateke, ez jatorrizko natur desberdintasunen emaitza. Heleno eta ez-helenoen arteko tradiziozko barrera ere sofistek eraitsi zuten, izadiaren eta arauaren eztabaida eztabaidatuz (*physis* eta *nomos* auzia). Sortzez gizakiok oro elkarren ahaide eta hirikide gara, ebatzi du Hippiasek (79 C 1). Helenoak eta barbaroak, izatez berdina gara guztiok alde guztietatik, Antifontek (87 B 44 B) esan zuen bezala. Kulturak edo legeak bakarrik desberdintzen gaitu.

Giza izatearen kontzeptua espiritualizatzen joan ahala erreparatzen diogu bilakabide honi (gizakia = arima, gizakia = arrazoimena), natur diferentziaren kontzeptu zaharra desagertuz doan heinean: “arima onaren aberria mundu guztia da”, biribil dezake Demokritok Ilustrazio grekoan. Une berean, gizadia bi zatitan partitzen jarraitzeko era berri bat ikusten dugu agertzen: Helendar izena, esango du Isokratesek *Panegirikoan*, ez dagokio jatorriari, jiteari baizik. Aztura helenoa duen atzerritarra helendarra da, eta aztura hori gabeko bertokoa ez da zinez helendarra, barbaroa baino. Estoatarrentzat gizon-emakumeak, arrazoimena-ri jarraitzen dioten eta ez dioten artean banatzen dira: nahinongo arrazoizkoak alde batean, nahinongo barbaroak bestean. Komunitatearen “barru/kanpo” bereizketaren lekuan, “goi/behe” espiritualaren diferentzia ezartzen da horrela: ikasiena, “helendarren” komunitatea; kulturagabeena, barbaroena, hauek etxeak izanda ere (herrien diferentziaren lekuan, arimena). Eragin estoatarraren pean, Erroman kontzeptu berri bat, Mendebaldeko historia intelektualean erabakiorra izango dena asmatu da, Eszipion gaztearen zirkuluan antza, arrazoizkoen komunitatea ezaugarritzeko: *humanitas*, jende prestuak hasieran errezeloz edo are destainaz begiratua, Zizeronek berehala ospe onez bete eta gero. Antzinadaniko baliio erromatar klasikoak biltzen zituen harrotasunezko *homo romanus* tradizionalaren aurka, *homo humanusek* ideal edo moda filo-helendar “filosofiko” berria adierazten du. Haren kontrarioa *homo inhumanus* da orain. Egia esan, ikuspegi honetan printzipioz gizadi osoari zabaltzen zaio gizatasun-aitortza, baita giza “miseria” askori ere: “homo sum, nil humani a me alienum puto” (Terentzio *Haut.*, 77). Bestetik, neure burua gizatiartzat hartzeak erraz kondentzen ditu ez-gizatiar soilera *ez-ni* edo *ez-gutarrak* (kristau/ez-kristau), aitzakia ona betiere haiek ez-gizatiar eta ez-kristauki zanpatzeko —modernitateak, aurkitu berri dituen mundu berrietan hasi eta gaur arte jarraitu, aski frogatu duenez—.

Ikus, Burckhardt, J. 1964-1971: *Historia de la cultura griega*, Bartzelona, Iberia.

Ikus, Jaeger, W. 1981: *Paideia. Los ideales de la cultura griega*, Mexiko, FCE.

## 2. MODERNITATEA

1. Moderniaren atarian bi fenomeno ondorioztatzen dira gizakiaren filosofiarentzat: *Humanismoa* eta *Erreforma* (protestantea).

Berpizkundeari protagonistek berek iritzi diote Grezia eta Erromaren birjaiotza edo berpizkundera, Aro Berria antzinateari esku emanez argitua (bien erdian Erdi Aroa ilunartzat utziz). “Humanistak”, hots, *studia divinako* ikasleek ez bezala, *studia humaniora* ikasten dituztenak, autore klasiko greko eta, oroz gain, latinoen irakurketan murgilduak bizi dira (Zizeron, Virgilio), antzinako munduan ikasiz biziera berrirako jitearen eta, batik bat, jardun publikoaren bideak eta ereduak. Berpizkundera “gizakiaren aurkikunde” gisa ezagutaraztea, Burckhardt-ek gero arrunta izan dena, erlatibizatu beharra badago ere: errealitatea *humanitas* kontzeptua da, berriro baliorik positiboenaz (berba horrek Erdi Aroan giza ahultasuna —bekatu edo erroterako makurtasuna— adierazten zuen), eta funtsezko bilakatu da gogoeta berrian. “De hominis dignitate” ideiak dominatzen ditu Pico della Mirandola edo Ficino-ren filosofia ez ezik, pintura eta eskultura berriak ere, Hiri Errepublikak italiarretako jaun burgesen autokontzientzia edo harrotasuna ez esateko. Gizakiak, Jainkoaren irudiko sorkari horrek, naturarik ez duela esango da: bera da bere izatearen (buruaren) egile edo artista askea. Marmol kantale beretik atera daiteke Dabid edo bular bat. Gizakia eta askatasuna gauza bera, alegia; askatasuna berdin sormenerako gaitasuna. Modernitatea —Iparraldeko herrien produktua— Berpizkundearen aurkako jarraipena da puntu honetan ere: erlijio-gerrengatik eta, edo eszeptiko eta libertinoengatik, askatasunaren “gehiegikeriak” ikaturik, gizon-emakumea ordena finko batean amarratzen duen izatea bilatuko du. Askatasuna bai, baina ordena baten mende. Betiere, Machiavelli eta Montaigne-rengandik pasatuz Descartes (*Traité de l'Homme*) edo Hobbes eta Spinoza, Hume-ren *Tratatura*, giza izatea zein den auziak (isilpean: zein izan behar duen!), eta izate hori errebelazio eta erlijiotik jare, razionalki definitzeko grinak filosofia inbaditu du. Gizakiaren arazoak filosofia moderno osoa gurutzatzen du.

Erreformak, beste era batera, baina azken batean berdin, bakoitza bere kontzientziatxo indibidualarekin Jainkoaren aurrez aurre zuzenean jarriz, Elizaren bitartekaritzarik gabe, gizon-emakumea bere baitara itzularazi du, eta “zer zara zu” galderarekin sakonki erkarazi alegia, “zein da zure izatea eta patua”. Norbakoitza bere bakoitzasun setiatuan larri. Leizarraga baitan giza izate hori “choil corripitua eta maradikatua dela” irakur dezakezu. “Bekatu originala da gure naturaren arraçazko corruptione gaichto bat, eta harçaz da corripitua arimá, bayeta guiçona gucia”. Sekula ez da lehen hala azpimarratu gorputz eta arimaren dikotomia (filosofian Descartesek egingo du beste hainbeste): “Guiçona da creatura bat gorputz corruptiblez eta arima immortalez compausatua eta eguina”. Mutur batean arima (salbazioa, moralá), bestean gorputza (interes ekonomikoak), ahalik eta urrunena bata bestetik: arimaren azterketa razionala Metafisikarentzat geratuko da, gorputzarena sendagileentzat, bion (hots, gizakiaren) inolako batasunik gabe funtsean. Hortik eta horrelaxe sortu baita, sortu, antropologia “bi naturatako” izakiaren zientzia gisa (O. Casmann, “doctrina geminae naturae humanae”), bai izena bera eta bai izen horretako diziplina edo ikasgaia eskola-sistema protestantean. Izan ere, irakaskuntzaren berrantolaketa erreformatuko

hainbat ikasgai berriren artean (Psikologia, Ontologia, etab.) aurkitzen dugu “antropologia” hitza lehen aldiz —hitzaren gaurko adieran—, M. Hundt Leipzig-eko maisuaren *Anthropologium de hominis dignitate, natura et proprietatibus* izenburuan hain zuzen (1501). Diziplina berria O. Casmann-ek (1596) honela definitu zuen: “Anthropologia est doctrina humanae naturae”. Baina hori ez da bat, bi baino.

Ikus, Cassirer, E., Kristeller, P. O. eta Randall, J. H. 1948: *The Renaissance Philosophy of Man*, Chicago, University of Chicago Press.

Ikus, Dilthey, W. 1978: “La función de la antropología en los siglos XVI y XVII”, in W. Dilthey, *Hombre y mundo en los siglos XVI y XVII*, Mexiko, FCE, 407-91.

2. Ilustrazio modernoarentzat “zer da gizakia” auzi nahasi bilakatu da dagoeneko, eta aldi berean teologiko, filosofiko, politiko eta espekulatibo, baita empiriko eta natur zientzie-tako ere. (1) Batetik, nolabait filosofiko-teologikoki, humanismo eta erreformaren arteko talkaren herentzia dugu (Lutero vs Erasmo); gizakiari buruzko ikuspegi katoliko (edo *antropozentrismo jesuita*) eta protestantearen oposizioa; katolizismoaren barruan bertan jansenismoaren nahasmendua, Pascalen introspektzio antropologia espiritualaren gailurrarekin. Descartesez geroko filosofia guztia urrundu egiten da ikusmolde bibliko-teologikotik, gizakia modu razional hutsean atzeman nahi baita. (2) Era bertsuan eta aldi berean, A. Vesalio-ren *De humani corporis fabricaz* gero (1543), “antropologia” interes mediku edo naturalista izaten ari da: O. Casmannek berak “Fabrica humani corporis” izendatzen du tratatuaren bigarren zatia. Antropologia-tratatu ugari bada medikuentzat. Ikusmolde anatomista-naturalista batetik interesatuko dira gizakiaz, behiala Joanes Huarte Donibanekoa bezala. Geroago Buffon, d’Holbach, Barthez, Helvetius, La Mettrie, Chavannes. Diderot-entzat, antropologia ez da anatomiaz aparte ezer gehiago. (3) Azkenik, Mundu Berriaren aurkikuntzak, “gizakia zer da?” galdera, premiazko bihurtu du eta inportantzia politiko-moralez kargatu du: gizakiak ote dira indioak? gure berdinak ote? XVI. mende espainolean, Frai Petri Gantekoarentzat indio amerikarrak arrazoimenik gabeko abereak dira; Fernández de Oviedo-rentzat izatez gaiztoak eta perbertsoak; Ginés de Sepúlveda aristotelikoarentzat apenas duten giza arrastorik beren izaeran; esklaboak izan beharreko piztiak dira berez. Las Casas, Aita Vitoria, kontra daude. Aita Santu Paulo III.ak bulda baten bidez indioak “zinezko gizaki”, “kristautuak izateko gauza” deklaratzuz moztu behar izan zituen (1537) filosofo eta teologo espainolen eztabaidok. XVIII. mende frantsesean, aldiz, Lafiteau jesuitarentzat indio amerikarrek “gizaki natural” jatorra irudikatzen dute (“bon sauvage”), eta berezko dohain ederrez eta bertutez jantziak daude. (4) Filosofia modernoan, orobat, bidaiari eta misiolarien berri kontraesangarriek, arrazoi kontrarioak bermatuko dituzte: izatez “gizakia gizakiarentzat otso” da, Hobbes-en iritzian (XVII); on eta errukitsua, Rousseau-ren ustean (XVIII). Oro har, Ilustrazioa ez da oso ilustratua izan: F. Bacon-en iritziz (XVII), Ameriketako indioen aldean europarrek jainko dirudite; Voltaire-k (XVIII) ez du inola onartzen beltz mokolo burugabeak edo eskimo tutuluak eta Europako arraza zuria espezie berekoak izan daitezkeenik, arbaso berdinetatik etorritakoak, espezie berekoak ezin izan daitezkeen bezalaxe gizakiak eta tximinoak. Tximino eta gizakien arteko espezie bat lirajteke beltzak haren gardiz.

Ilustrazioaren garaian artean auzi filosofikoa zen “gizon-emakumea zer da ” gaia (hori tragedia forman plazaratu zuen Ilustrazio grekoak). Egiatan, Modernitatearen lehen paradigma osoa da —metafisika kartesiar guztia— krisian egon dagoena barne-barnean.

Frantziako Iraultzaren inguruan, bada, Kantek sumatu zuen, filosofiaren krisi orokorra antropologia Lehen Filosofia edo Oinarrizko Filosofia gisako zerbait bihurtzen ari zela. Hala adierazi zuen *Logika* liburuaren “Sarreran”: “Filosofiako esparrua (...), zentzu kosmopolitan, ondoko itaunotara ekar liteke: (1) Zer jakin dezaket? (2) Zer egin behar dut? (3) Zer itxaro dezaket? (4) Zer da gizakia? Aurreneko itaunari Metafisikak erantzuten dio, bigarrenari Moralak, hirugarrenari Erliñoak eta laugarrenari Antropologiak. Baina dena, funtsean, Antropologiatzat jo daiteke, aurreneko hiru itaunak laugarrenari erreferitzen zaizkio eta”. *Antropologia ikuspegi pragmatikoan* tratatuaren autorea ere bada Kant (1798), gaiak Ilustrazioarentzat zuen interesaren lekuko.

Hala ere, antropologia filosofiko batez oraindik ezin mintza gintezke: gizakia esentzialki arrazoimenarekin definituz, eta arrazoimena ez-historiko gisa ulertuz funtsean, antropologiarik ez da posible. Gizakia ez da denbora gabeko esentzia espiritual bat.

Ikus, Duchet, M. 1975: *Antropologia e historia en el Siglo de las Luces*, Mexiko, Siglo XXI.

Ikus, Horkheimer, M. 1990: “Egoismo y movimiento liberador. Contribución a una antropología burguesa”, in M. Horkheimer, *Teoría crítica*, Buenos Aires, Amorrortu, 151-222.

Ikus, Lorite Mena, J. 1989: “Kant, la pregunta por el ser del hombre y el nacimiento de la Antropología como problema filosófico”, *Pensamiento* **178**, 129-55.

3. Antropologiak bi prozesu historiko orokor izan ditu oro har: (1) metafisikaren mende jausi gabe garatu da XVII. eta XVIII. mendeetan, giza mundu enpirikora etortzeko, eta (2) XIX.ean —“giza zientzien” sorkuntzaren mendea— eta XX.ean, Frantziako Iraultza ostean garatu diren Historiaren Filosofia indartsuetatik poliki-poliki askatzen joan da —gogora itzazue Hegel, Marx, Darwin—, nahiz eta horiek ere haien eskematismoekin jokatu zuten hastapenetan: alegia, suposatzen da historia arrazoimenaren garapen mailakatu dela eta gizadiak, hots, herri guztiek, epe/maila jakin batzuk garatzen dituztela beren eboluzioan behetik gora (basakeria, zibilizazioa). Modu akademikoan jaió eta loratuz, antropologia kulturala moderno bilakatu da, Europako zibilizatuaren zientzia gisa, basakerian geraturiko edo “historia gabeko” herriei buruz; goitik behera begira, arkeologia kultural baten antzera (E. B. Tylor, L. H. Morgan, etab.). Antropologia honek ikertzen —eta praktikatzen— duena “gizakiaren filosofia” modu bat izan daiteke, baina hertsiki ezin da antropologia filosofikotzat onartu. Haatik, antropologia filosofiko bat seguru asko ezin da pentsatu, hura suposatu gabe.

Ikus, San Martin, J. 1988: *El sentido de la filosofía del hombre. El lugar de la Antropología Filosófica en la filosofía y en la ciencia*, Bartzelona, Anthropos.

Filosofia krisiune guztietan antropologizatu egin dela ohartarazten digu Cassirerek: sofistekin, Berpizkundean, Ilustrazioan, Lehen Mundu Gerraren ondoan. Hertsiki, antropologia filosofikoa deritzana XX. mendean sortu da; ez da sortu, ordea, historia eta, haren baitan, gizakia zer diren (haren historikotasuna) jakiteko, baizik eta galdera berriro planteatuta, gizakia zer [animalia] den kosmosean (haren izaera) ezagutzeko. Harrezkero, hots, bigarren Modernitate filosofikoaren porrotaz —“arrazoimen idealista”rena— geroztik (sozialki Lehen Mundu Gerrarekin seinala litekeena), eta, halaber, gizakiaren zientzien garapen berriak (biologia, etnologia, burmuinaren ikerketa, soziologia, psikologia, etab.) XIX.

mendeaz geroztikotzat hartuz, buru izan ditu Hegel eta Feuerbach, Marx eta Darwin, Dilthey eta Nietzsche edo Freud orobat, bai gizaki modernoaren kontzientziaren auzikatzaile eta krisieragile bezala, baita erantzun berrietarako lagungarri gisa ere. Antropologia filosofikoaren sorlekutzat, sinbolikoki, Max Scheler-en *Die Stellung des Menschen im Kosmos* (*Gizakiaren lekua kosmosean*) liburutxoaren argitalpena (1927 [1928an liburu gisa]) aipatu ohi da. Antropologia filosofikoa ez doa jada "gizakia zer da" esentzia metafisiko baten bila; antropologia filosofikoaren ikuspegia orain beste bat da; alegia: (1) krisialdi berberetik garai bertsuan aldaxkatu ziren fenomenologiarekin eta/edo hermeneutikarekin uztartua egon ohi da; (2) zientzia berrien ekarpenez baliatu beharra dauka. Bestalde, "gizakia zer da" auziari buruzko ikerketa filosofikoak (3) ezin du ez barnebildu galdera hori zer izan den gizakiarentzat berarentzat denboran zehar, hau da, haren kontzientziaren bilakabidea eta kontzientzia horren bilaketa jakiarazkoa historian, hots, gizakiaren filosofia inplizituak mitoan, esan bezala, edo filosofia desberdinek modu desberdinean adierazi duten gizon-emakumearen kontzeptua. Filosofiko diziplina oro bere historiarekin elkarrizketan hezur-mamitzen da. Edozein trataturi begiradaxo bat emanez gero igar daitekeenez, antropologia filosofikoaren gai nagusiak, tesiak baino gehiago, arazoak dira: gizon-emakumearen hitz-gaitasuna, askatasuna eta sormena, etikaren oinarriak, biologia eta kultura, gorputza/arima (edo burmuina/ pentsamendua), sinboloa, utopia, etab. Arazo hauetako bat, ez azkena ezta txikiena ere, antropologia filosofikoa bera zertan datzan ikuskatzea da: gizakiari buruzko, hau bere osotasunean ulerturik, diskurtso filosofikoa egiteko posibilitatea hain zuzen ere. Gero, dena dela, ikasgaiaz desberdina da antropologia filosofiko praktikatua. Adibidez, Foucault-en lana antropologia filosofikotzat har daiteke, egilearen beraren esanean; berdin P. Sloterdijk-en *Weltfremdheit* ("Munduarroztasuna") (1993), eta gaur egungo beste hainbat autoreren lanak.

### 3. OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

Komeni da kontzeptuari behako bat emanez hastea hiztegi filosofiko on edo eskulibururen batean.

Artikulu irakurgarriak:

- Blanckaert, C. 1990: "Anthropologie", eta Rivière, C.: "Anthropologie (culturelle)", in S. Auroux, (arg.), *Encyclopédie philosophique universelle. Les Notions philosophiques*, Paris, Presses Universitaires de France.
- Pappé, H. O. 1972: "Philosophical Anthropology", in P. Edwards, (arg.), *The Encyclopedia of Philosophy*, V. bol., New York-Londres, Macmillan Publishing Co.

Anitz dira eskuliburuak. Bat aukeratzekotan:

- Haeffner, G. 1982: *Philosophische Anthropologie*, (*Antropología Filosófica*, Bartzelona, Herder, 1986.).

Gizakia zer den arazoaren tratamendu sistematikoa, ikuspegi ontologikoan, historikoa espresuki baztertuz, hitz-gaitasuna, egoera soziala eta historikotasuna, irekitasuna transzendentziara, etab., gizakiaren izatasuna orokorki arakatzen da. Heidegger-en tankerako aztertze-metodoaz dihardu.

Bonte, P. eta Izard, M. 1991: *Dictionnaire de l'ethnologie et de l'anthropologie*, (*Diccionario de etnología y antropología*, Madril, Akal, 1996).

Pansera, M. T. 2001: *Antropologia filosofica. La peculiarità dell'uomo in Scheler, Gehlen e Plessner*, Milan, Bruno Mondadori.

Antropologia filosofikoa sortu eta ezarri duten hiru klasikoen azterketa eta testu-antologia arazo hautatuen arabera: antropologia eta etika, teknologia, etab.

Beorlegui, C. 1988: *Lecturas de antropología filosófica*, Bilbo, Desclée de Brouwer.

Liburu praktikoa: azalpen historikoak antropologia filosofikoa zer den, horren inguruan diren eztabaidak, irakurgai hautatuak funtsezko hainbat arazori buruz, sarreratxo egokiekin: biologia/kultura, gogamena/burmuina, askatasuna, etab. Autore berak badu beste liburu bat, antropologia filosofikoaren estatutu epistemologikoa nola zehazki zedarritu interesatzen zaionarentzat: Beorlegui, C. 1999: *Antropología filosófica*, Bilbo, Universidad de Deusto.

Cassirer, E. 1944: *An essay on Man. An Introduction to a Philosophy of Human Culture*, (*Gizakiari buruzko entseia. Giza kulturaren filosofiari sarrera*, Bilbo, Klasikoak, 1995).

XX. mendeko antropologia filosofikoaren testurik klasikoena (hurrengoarekin batera). Lehen partean "zer da gizakia" tratatzen da; baina gizakia zer den, ez da esentzia bat, baizik haren zertasunaren agerpena jardunean; bigarren partean gizakia eta kultura lantzen dira. "Abere arrazoinamenduarena" definizio klasikoaren lekuan, orain hobetsi ohi den "abere sinbolikoarena", testu honek ezarria da.

Gehlen, A. 1940: *Der Mensch. Seine Natur und seine Stellung in der Welt*, (*El hombre. Su naturaleza y su lugar en el mundo*, Salamanca, Sígueme, 1987).

Gizakia da bere ments-izate (eskas izate) esentziala era biologikoan konpentsatu beharra daukan aberea, horregatik da bere izatea kultura duena. Gehlen-ek filosofiak zientzia enpiriko bat izan behar duela uste du, eta hala izan nahi du liburuak. Antropologia filosofikoan eraginik handiena izan duen testua.

Badago gizakia zer den orokorki planteatzen duen liburu xume irakurteraz bat:

Montagu, A. 1950: *On Being Human*, (*Qué es el hombre*, Bartzelona, Paidós, 1993).

Jakina, ez ditu aurreko biak ordezkatzen. Pedagogikoa da.

Caro Baroja, J. 1991: *La aurora del pensamiento antropológico. La antropología en los clásicos griegos y latinos*, Madril, CSIC.

Izenburuak adierazten duen bezala, ekarpenen bilketa nahiko zorrotza da, Hesiodorekin hasi eta (sofistak, Platon, Aristoteles, etab.) Tazitoren lanetara ailegatu arte.

Errepaso historiko baliagarria izan daiteke (Platon, kristautasuna, Marx, Freud, Sartre, Skinner, Lorenz), interes filosofiko handiagoz bederen, Oxford-eko honako liburutxo hau:

Stevenson, L. 1974: *Seven Theories of Human Nature*, (*Siete teorías de la naturaleza humana*, Madril, Cátedra, 1983).

Azurmendi, J. (arg.) 1997: *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora*, Donostia, Jakin.



M. Duchet eta O. Marquarden testuen bilduma eta itzulpena, antropologia filosofikoaren aurreko ilustratuez eta haren hartariko sorreraz. Duchet-en testua kritikoa da Ilustrazioarekin. O. Marquardenak, biziki testu inportanteak, ez dira irakurterrazak.

Morin, E. 1973: *Le paradigme perdu: la nature humaine*, Paris, Seuil.

Biologiak, soziologiak, antropologia espiritualistak "hausten" duten gizakia bere batasunean, osotasunean bilatzen. Garrantzizkoa: gizakiaren zientzia berriek daragiten krisiaren erakusle, biologiari behar duen inportantzia ematen dio.

Biologiaren aldetik antropologia filosofikorako interesgarriak:

Ayala, F. J. 1980: *Origen y evolución del hombre*, Madril, Alianza.

Cavalli-Sforza, L. 1993: *Chi siamo. La Storia della diversità umana*, (*Quiénes somos. Historia de la diversidad humana*, Bartzelona, Crítica, 1994).

Durand, G. 1975: *Science de l'homme et tradition*, (*Ciencia del hombre y tradición. El nuevo espíritu antropológico*, Bartzelona, Paidós, 1999).

Ruffié, S. 1983: *De la biologie à la culture*, 2. bol., Paris, Flammarion.

Hermeneutikaren joerako saio interesgarriak gizaki sinbolikoaren alde. Autore beraren beste obra garrantzitsu eta ezagun bat:

Durand, G. 1960: *Les structures anthropologiques de l'imaginaire: introduction à l'archétypologie générale*, (*Las estructuras antropológicas de lo imaginario*, Madril, Taurus, 1981).

Barley, N. 1983: *The Innocent Anthropologist*, (*El antropólogo inocente*, Bartzelona, Anagrama, 1989).

Mendebaldeko gizon-emakume zuriak haiek direla munduko estandarra pentsatzeko joera dute, normaltasunaren eredu bakarra bailiran. Burla dibertigarri bezain jakintsua duzu hauxe.

Gizakiaren edo gizatasunaren kontzeptu ez mendebaldar batzuetarako, ikus adibidez:

Ansari, Iqbal A. 1997: *Concept of Man in Comparative Perspective*, New Delhi, Institute of Objective Studies.

Munro, D. J. 1969: *The Concept of Man in Early China*, Stanford, Stanford University Press.

Munro, D. J. 1977: *The Concept of Man in Contemporary China*, Ann Arbor, University of Michigan.

Radhakrishnan, S. eta Raju, P. T. 1960: *The Concept of Man. A Study in Comparative Philosophy*, (*El concepto del hombre*, Mexiko, FCE, 1964).